

# Herriko kontseiluaren 2020.05.25eko bilkura

Hor zirenak: Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Bernadette Mousquès, Daniel Ithurburua, Isabelle Arangoits, Betti Bidart, Annie Juantorena, Betti Olçomendy, Hélène Deguiraud, Frantxoa Mocho, Maddalen Dupuy, Sébastien Clauzel, Sandrine Mercapide, Jean-Paul Bibes.

Hastapena: 20:40

## Gai zerrenda:

- 1. Auzapezaren hautatzea:** Biltzarreko kiderik zaharrenak, Bernadette Mousquès-ek, auzapezaren hautatzea kudeatu du. Jean-Michel Coscarat hautagai bakarra da.  
15 kontseilariak Jean-Michel Coscarat hautatu dute, aho batez.
- 2. Axuanten kopuruaren erabakitzea eta,** ondotik, haien hautatzea: Jean-Michel Coscarat-ek lau axuanteko zerrenda bat proposatu du, hola osatua: 1. axuanta, Marie-Agnès Haristoy, 2. axuanta, Antton Curutcharry, 3. axuanta, Bernadette Mousquès, 4. axuanta, Daniel Ithurburua.  
15 kontseilariak lau axuanten zerrenda hautatu dute, aho batez.
- 3. Lekuko hautetsiaren hitzarmenaren irakurtzea**
- 4. Egitura desberdinetako Herriko ordezkarien izendatzea**
  - Herriko Jendarte Laguntza Zentroko Administrazio Kontseilua: 5 kide hautatu dira: Annie Juantorena, Bernadette Mousquès, Marie-Agnès Haristoy, Isabelle Arangoits eta Maddalen Dupuy. Auzapezak izendatu 5 kideak: Annie Juzan, Didier Lampert, Annie Obiague, Yolo Rey Matos, Maite Cuburu.
  - Zerga zuzenen herriko batzordeak: lur eraikiak, lur ez-eraikiak, 2020ko bizitegi zerga, oihanak, bizitegia herritik kanpo duten pertsonak (kasu horretan, hautatzea gibelatua da). Ikus zerrenda osoak Herriko Etxean.
  - Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoa: Frantxoa Mocho
  - Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuko batzordea: Jean-Paul Bibes (ordezkoa: Sébastien Clauzel)
  - Hiltegiaren kudeatzeko herriarteko sindikata: Sandrine Mercapide
  - Herrien biltzarra: Jean-Michel Coscarat
  - Eskaintza deialdien batzordea: Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Jean-Michel Coscarat
  - Donostei kolegioaren arduraduna: Marie-Agnès Haristoy
  - Jean Pujo kolegioaren arduraduna: Bernadette Mousquès

- Eskolen kutxa: Jean-Michel Coscarat, Bernadette Mousquès, Annie Juantorena
- Baigorri-Garazi lurralde batzordeko ordezkariak: Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Bernadette Mousquès
- Mendiko suen batzordea: Frantxoa Mocho, Betti Olçomendy, Sandrine Mercapide, Daniel Ithurburua, Sébastien Clauzel.
- Defentsa ordezkaria: Betti Bidart

Egitura desberdinetako Herriko ordezkariak aho batez hautatuak dira.

- 5. Herriko Kontseiluko delegazioak Auzapezari ematea:** Herriko Kontseiluari galdegina zako Auzapezari ahalmen batzuen ematea; haietan bide publikoetako tarifen finkatzea, maileguak, merkatuen pasatzea eta arautzea, hilerriko kontzesioen ematea eta oinordekotza.

Herriko Kontseilua, aho batez, Auzapezari ahalmen batzuen delegazioa ematearen alde agertu da.

- 6. Batzordeen osatzea:** Etxetik kanpoko Batzordeak osatzen dira. Herriko Kontseiluko kide batzuk eta Baigorriko herritar batzuk elkartuko dituzte: ekonomiari buruzko Herriko Etxetik kanpoko batzordea (lehendakaria: Betti Bidart), euskarari buruzko Herriko Etxetik kanpoko batzordea (lehendakaria: Maddalen Dupuy), trantsizio ekologikoari buruzko Herriko Etxetik kanpoko batzordea (lehendakaria: Hélène Deguiraud), obrei eta hirigintzari buruzko Herriko Etxeko batzordea (ko-lehendakariak: Daniel Ithurburua eta Jean-Michel Coscarat).

Herriko Kontseilua, aho batez, Herriko Etxetik kanpoko hiru batzorderen eta Herriko Etxeko batzorde baten sortzearen alde agertu da.

- 7. Diruzainaren ordainsaria:** Usaian, Herriak ordainsari bat emaiten dako Herriko diruzainari, urtean zehar egiten duen segimendu lanarengatik, %100ko heinean (580€). Herriko Kontseilua, aho batez, diruzainaren ordainsariaren alde agertu da.

- 8. Bestetako eta zeremonietako gastuak:** Bestetako eta zeremonietako gastuendako lerro baten sortzea proposatua da (lore sortak, agiantzak, estreinatzeak, etab.).

Herriko Kontseilua, aho batez, «bestak eta zeremoniak» buxet-lerro baten sortzearen alde agertu da.

- 9. Betti Olçomendyren sare elektrikoaren luzatzea:** Betti Olçomendyk sare elektrikoa 105 metroz luzatzea eskatu du, bere garajeraino (geroko bizitegia), Germietan. Proposatua da obrak lurpetik egitea, 15 000€ inguruko prezioan. Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuak obrak diruztatuko ditu %80ko heinean. Beraz, Herriaren gain gelditzen dena 3 000€-tara heldu da.

Herriko Kontseilua, aho batez, ken 1 (Betti Olçomendyk ez du bozkan parte hartu) Betti Olçomendyren sare elektrikoaren luzatzearen alde agertu da.

- 10. Helbideen ezartzeko eta eskubaloi-gelako laguntza funtsa:** Herriak hautagaitza aurkeztu du Euskal Elkargoko bi laguntza funtsen eskatzeko. Lehena, helbideen ezartzeko (%50eko

heinean, 6 000€-ko kostuarendako) eta bigarrena proiektu egituratzaileendako (eskubaloi-gela) 240 000€-ko heinean.

Herriko Kontseilua, aho batez, helbideen ezartzeko eta eskubaloi-gelako laguntza funtsa eskatzearen alde agertu da.

**11. Zuntz-sarearen azkartzea, Postaren inguruan:** Deliberamendu hori gibelatua da.

**12. Eskubaloi-gelaren finantzatzeko aurrekontu-plangintza:** Eskubaloi-gela berriaren aurrekontu-plangintza 2 841 993,90€-tara heldu da, orotara. Urte hastapenean presentatu txostena baino karioago da. Departamendu Kontseiluari, Kirol Agentzia Nazionalari, Baserrialdeko Lurraldeen Ekipamendu Dotazioari dei egin zaie dirulaguntzak ukaiteko. Herriaren autofinantzamendua 671 148€-tara heldu da (%23, nonbait han). Herriko Kontseilua, aho batez, eskubaloi-gelako aurrekontuaren alde agertu da.

**13. Euskal Elkargoak lursail batzuk Herriari itzultzea (SCI Ainchart) :** Euskal Elkargoak lursail baten itzultzea proposatu du, Bortzirietako geroko aktibitate eremuaren ondoan. Beraz, Herriak 13 hektarea berreskuratu ditu (aintzira bilakatu den lehengo harrobia eta oihana, N sailkatu eraiki ezineko eremuan), 57 311€-tan. Herriko Kontseilua, aho batez, Euskal Elkargoak lursail bat Herriari itzultzearen alde agertu da, 57 311€-ko kostuan.

**14. Balio Erantsiaren gaineko Zerga zenbaki eskaera:** ekainean lehengo Herriko Etxeko arkupeetan irekiko den «Kortxo» jatetxeak BEZ zenbakia eskatu du. Herriko Kontseilua, aho batez, «Kortxo» herriko jatetxeari BEZ zenbaki baten emaiterearen alde agertu da.

**15. Geltoki lotizamenduaren buxetaren desegitea:** Herriko Kontseilua, aho batez, Geltoki lotizamenduaren buxetaren desegitearen alde agertu da.